

VIII ENCUESTRO AUDIOVISUAL

IMÁGENES CON MEMORIA

IKUS-ENTZUNEZKO VIII. TOPAKETA

MEMORIA DUTEN IRUDIAK



23 24 25 26 27

MARZO / MARTXOA 2026

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

NAVARRA ‡ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

INSTITUTO NAVARRO DE LA
MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA



VIII ENCUESTRO
AUDIOVISUAL

IMÁGENES CON MEMORIA

IKUS-ENTZUNEZKO
VIII. TOPAKETA

MEMORIA DUTEN IRUDIAK



IMÁGENES CON MEMORIA

La VIII edición del Encuentro Audiovisual **Imágenes con Memoria** ratifica una tendencia ya apreciada en las últimas ediciones: no sólo aumentan las producciones en formato documental sobre Memoria Histórica (este año se han analizado cerca de medio centenar de proyectos), sino que las miradas son cada vez más poliédricas.

El salto cuantitativo y cualitativo resulta evidente y notable. Las trayectorias de los autores/as que se dan cita este año muestran una creciente profesionalización y de ahí se desprende la alta calidad de las 13 obras que este año podrán verse en Pamplona y en Tudela.

El encuentro recorre historias que van del Estado español hasta África o América, y desvela temáticas como la visibilización de asesinatos producidos durante los primeros días del golpe de 1936, la resiliencia de un grupo de mujeres de barrio peleando por sus condiciones de vida o las penalidades de los exiliados en Orán. Miradas intimistas, epopeyas históricas, estilos y narrativas muy diferentes nos adentran en terrenos heterogéneos que van de la importancia de la música al horror de los abusos sexuales en el seno de la iglesia católica.

En todos los casos lo que se reivindica es la libertad, la igualdad y la democracia bajo el común denominador de un encuentro que cada vez resulta más pertinente y reparador.

MEMORIA DUTEN IRUDIAK


Memoria duten Irudien

Ikus-entzunezko Topaketaren VIII. edizioak azken urteotan ikusitako joera bat berresten du: Memoria Historikoari buruzko dokumental-formatuko produkzioek gora egiteaz gain (aurten berrogeita hamar proiektu inguru aztertu dira), begiradak gero eta poliedrikoagoak dira.

Jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa agerikoa eta nabarmena da. Aurten biltzen diren egileen ibilbideek gero eta profesionalizazio handiagoa erakusten dute, eta hortik ondorioztatzen da aurten Iruñean eta Tuteran ikusi ahal izango diren 13 lanen kalitate handia.

Topaketak Estatu espainiarretik Afrikara edo Amerikara doazen istorioak aztertzen ditu, eta 1936ko kolpearen lehen egunetan gertatutako hilketen ikusgarritasuna, auzoko emakume talde baten erresilientzia eta Oranen erbesteratuen nekeak azaltzen ditu. Ikuspegi intimistek, epopeia historikoek, estilo eta narratiba oso desberdinek musikaren garrantzitik eliza katolikoaren barruko sexu-abusuen izugarrikeriara doazen eremu heterogeneoetan baneratzten gaituzte

Kasu guztietan askatasuna, berdintasuna eta demokrazia aldarrikatzen dira, gero eta egokiagoa eta konpontzaileagoa den topaketa baten izendatzaile komunaren pean.



PAMPLONA / IRUÑA. CINES GOLEM BAIONA ZINEMAK

23 LUNES | ASTELEHENA

- 17:00 ENTREGA DEL PREMIO DEL PÚBLICO 2025 A ROBER
ASTORGANO POR SU PELÍCULA *LAS MUJERES DE NEGRO*
2025EKO PUBLIKOAREN SARI-EMATEA ROBER
ASTORGANORI *LAS MUJERES DE NEGRO* FILMAGATIK
- LA MURALLA DE LOS PRISIONEROS
JOSÉ LUIS TIRADO
- 19:30 SUERTE DE PINOS
LORENA MUÑOZ

24 MARTES | ASTEARTEA

- 17:00 BUSCANDO A PEDRO BAIGORRI
UNAI ARANZADI
- 19:30 A FLOR DE TIERRA
ÁNGELA GALLARDO
- 21:00 LA MARSELLERA DE LOS BORRACHOS
PABLO GIL RITUERTO

25 MIÉRCOLES | ASTEAZKENA

- 17:00 L'ESCAEZU DE LES PIEDRES (EL OLVIDO DE LAS PIEDRAS)
OMAR TUERO
- 19:30 ELLAS EN LA CIUDAD
REYES GALLEG0
- 21:30 DOLORES IBARRURI. PASIONARIA
AMPARO CLIMENT

26 JUEVES | OSTEGUNA

- 17:00 LAS ARMAS NO BORRARÁN TU SONRISA
ADOLFO DUFOUR
- 19:30 EXP. 95/36 COLUMNA MINERA. HASTA LA ETERNIDAD
JESÚS GARRIDO
- 21:30 O SILENCIO HERDADO
(EL SILENCIO HEREDADO)
LUCÍA DAPENA

27 VIERNES | OSTIRALA

- 17:00 CONTRALUZ
MARCELO PERES
- 19:30 HERMANA LEONOR
DIEGO PAQUÉ



TUDELA / TUTERA. CINE MONCAYO ZINEMA

24 MARTES | ASTEARTEA

19:30 LA MURALLA DE LOS PRISIONEROS
JOSÉ LUIS TIRADO

25 MIÉRCOLES | ASTEAZKENA

19:30 EXP. 95/36 COLUMNA MINERA.
HASTA LA ETERNIDAD
JESÚS GARRIDO



JOSÉ LUIS TIRADO

Sevilla, 1954. A mediados de la década de 1970 trabaja como fotógrafo de prensa en diarios y revistas –tras realizar estudios de Imagen en la Facultad de Ciencias de la Información de la Complutense y de Arte Dramático en el TEI– y se inicia en el campo de la creación en la elaboración de carteles e ilustraciones de carácter social, político y cultural. Coeditor y director de arte de la revista *La Luna* de Madrid, a lo largo de los años 80 y 90 compagina el diseño con la fotografía documental y la creación plástica. Desde el 2000, como artista y cineasta independiente, ha realizado diversos documentales y vídeo-creaciones sobre derechos sociales, migración, precariedad, medio ambiente o memoria histórica, entre otros: *Paralelo 36* (2004), *La liga de los olvidados* (2007), *Donde hay patrón...* (2007), *Paisaje del retroprogreso* (2010), *Fuentes de la memoria* (2011) o *El caso Rocío* (2013), *NO, un cuento flamenco* (2016), *La memoria de cristal* (2021), *El oasis* (2022) y *Gazela del Estrecho* (2023).

Sevilla, 1954. 1970eko hamarkadaren erdialdean prentsako argazkilari gisa lan egin zuen egunkari eta aldizkarietan –Complutenseko Informazio Zientzien Fakultatean eta TEIn Arte Dramatikoaren Fakultatean Irudi ikasketak egin ondoren–, eta izaera sozial, politiko eta kulturalerako kartelak eta ilustrazioak egiten hasi zen. Madrilgo *La Luna* aldizkariako argitaratzaile-kidea eta arte zuzendaria, 80ko eta 90eko hamarkadetan diseinua, argazkigintza dokumentala eta sorkuntza plastikoa uztartu zituen. 2000. urteaz geroztik, artista eta zinemagile independente gisa, hainbat dokumental eta bideo-sorkuntza egin ditu eskubide sozialei, migrazioari, prekarietateari, ingurumenari edo memoria historikoari buruz, besteak beste: *Paralelo 36* (2004), *La liga de los olvidados* (2007), *Donde hay patrón...* (2007), *Paisaje del retroprogreso* (2010), *Fuentes de la memoria* (2011) *El caso Rocío* (2013), *NO, un cuento flamenco* (2016), *La memoria de cristal* (2021), *El oasis* (2022) eta *Gazela del Estrecho* (2023).

LA MURALLA DE LOS PRISIONEROS

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **JOSÉ LUIS TIRADO**

GUION | GIDOIA: **JOSÉ LUIS TIRADO**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **ZAP PRODUCCIONES**, con la colaboración de la Asociación Tierra Olvido, Diputación de Cádiz, Ayuntamiento de Los Barrios, Ayuntamiento de San Roque y Mancomunidad de Municipios de La Janda-ren lankidetzarekin

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **90 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
JOSÉ LUIS TIRADO

Finalizada la Guerra Civil, el régimen franquista impulsa el Plan de Fortificación de la Frontera Sur para atacar la base británica de Gibraltar y controlar el tráfico del Estrecho, en el marco de la II Guerra Mundial y la alianza con Hitler y Mussolini. Estas obras (que incluían búnkeres, nidos de ametralladoras y la construcción de caminos y carreteras para el movimiento de maquinaria y tropas) fueron realizadas por los Batallones Disciplinarios de Trabajadores, unidades militarizadas formadas por unos 30.000 prisioneros republicanos sometidos a condiciones de esclavitud. El documental reconstruye este episodio de la represión franquista con testimonios de prisioneros y vecinos testigos, con el análisis de historiadores y mediante documentos y fotografías de la época.

Espainiako Gerra Zibila amaituta, erregimen frankistak Hegoaldeko Mugaren Gotortze Plana bultzatu zuen, Gibraltarko base britainiarrari eraso egiteko eta itsasarteko trafikoa kontrolatzeko, II. Mundu Gerraren eta Hitler eta Mussolinirekin egindako aliantzaren esparruan. Gotortze lan (bunkerrak, metrailadoreen habiak eta makineria eta tropak mugitzeko bideak eta errepideak eraikitzea barne) Soldadu Langileen Diziiplina Batailoiek egin zituzten, esklabotza egoeran zeuden 30.000 prisionero errepublikarrek osatutako unitate militarizatuek. Dokumentalak errepresio frankistaren kapitulu hau berregiten du gertaeren lekuko izan ziren presoek eta bizilagunen testigantzekin, historialarien analisiarekin eta garaiko dokumentu, film eta argazkien bidez.



LORENA MUÑOZ

Buenos Aires, 1972. Directora, guionista y productora de cine argentina. Entre 1996 y 1999 estudió dirección en el Centro de Investigación en Video y Cine y en el 2000 realizó un posgrado de guion cinematográfico en la Escuela Internacional de Cine y Televisión de San Antonio de los Baños, en La Habana, Cuba. Ha dirigido los cortometrajes *El rapto de Lena* (1997), *Pintor Gómez* (1998) y *El cazador es un corazón solitario* (1999), el medimetraje *Luz de giro* (2000) y, en codirección con Sergio Wolf, la película documental *Yo no sé qué me han hecho tus ojos* (2003), sobre la cantante de tango Ada Falcón, que fue galardonado con diversos premios.

Buenos Aires, 1972. Zinema zuzendari, gidoilari eta ekoizle argentinarra da. 1996 eta 1999 artean, zuzendaritza ikasi zuen Bideo eta Zinema Ikerketa Zentroan, eta 2000. urtean zinemako gidoi graduondoko bat egin zuen San Antonio de los Baño-seko Nazioarteko Zinema eta Telebista Eskolan, Habanan (Kuba). Film laburrak zuzendu ditu: *El rapto de Lena* (1997), *Pintor Gómez* (1998) eta *El cazador es un corazón solitario* (1999), *Luz de giro* film ertaina (2000) eta, Sergio Wolfekin batera, film dokumentala *Yo no sé qué me han hecho tus ojos* (2003), Ada Falcón tango abeslariari buruzkoa, sari batzuk irabazi duena.

SUERTE DE PINOS

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **LORENA MUÑOZ**

GUION | GIDOIA: **LORENA MUÑOZ**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **COPRODUCCIÓN**

ARGENTINA-ESPAÑA; BUFFALO FILMS

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **92 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
LORENA MUÑOZ

Documental que invita a repensar las historias que heredamos, con la intención de revisarlas y resignificarlas desde otra perspectiva. Lorena Muñoz nos ofrece una historia íntima y personal, centrada en un feminicidio que marcó el destino de su familia. La fuerza de la búsqueda, apoyada por el registro documental en el género policial de investigación, es el motor que impulsa un proyecto que transcurre en la localidad de Salduero. En ese mismo lugar, 70 años antes, mataron a la bisabuela y a la tía abuela de Lorena. Ella, que actualmente vive con su familia en Argentina, país al que emigraron tras la tragedia familiar, indaga en ese doble crimen perpetrado a la vista de todos y que nadie volvió a recordar hasta ahora.

Heredatu ditugun istorioak beste ikuspegi batetik berrikustera eta eraldatzera gonbidatzen gaituen dokumentala. Lorena Muñozek istorio intimo eta pertsonal bat eskaintzen digu, bere familiaren patua markatu zuen feminizidio batean zentratua. Istorio honen bilaketaren indarra, ikerketako polizia-generoko dokumentu-erregistroaren laguntzarekin, Salduero herrian gertatu zen proiektua bultzatzen duen motorra da. Leku horretan bertan, 70 urte lehenago, Lorenaren birramona eta izeba-amona hil zituzten. Tragedia horren ondoren, familia Argentinara emigratu zuen eta bertan bizi da gaur egun. Orain, denen bistan egindako krimen bikoitz hori ikertzen ari da, orain arte inork aipatu ez duena.



UNAI ARANZADI ORMAETXEA

Getxo, Bizkaia, 1975. Es fotógrafo, documentalista y periodista especializado en conflictos armados, memoria y derechos humanos. Como reportero de guerra suma una experiencia de veinticinco años. Viajero en cien países, ha residido en ciudades como Estocolmo, Nueva York, Dublín o Copenhague. En invierno de 2025, y hasta la actualidad, Unai Aranzadi se ha dedicado a recorrer a pie el corredor de guerra que separa las ciudades ucranianas de Járkov de Kozacha Lopan en la frontera con Rusia. Su pretensión no es otra que la de conocer y divulgar las historias de la gente local inmersa en el conflicto en una zona de constante fuego armado y violencia. Su documental sobre Pedro Baigorri es fruto de largos años de pesquisas en los que, poco a poco, ciudad a ciudad, sin apenas medios de producción, Aranzadi ha desenterrado una historia olvidada.

Getxo, Bizkaia, 1975. Argazkilari, dokumentalista eta kazetaria da, gatazka armatuetan, memorian eta giza eskubideetan espezializatua. Gerrako erreportari gisa hogeita bost urteko esperientzia du. Ehun herrialdetako bidaiaria, Stockholm, New York, Dublin edo Kopenhage bezalako hiritan bizi izan da. 2025eko neguatik gaur egun arte, Unai Aranzadik oinez egin du Ukraniako Kharkov eta Kozacha Lopan hirien arteko gerra-korridorea, Errusiako mugan. Bere asmoa gatazkan murgilduta dagoen tokiko jendearen istorioak ezagutzea eta zabaltzea da, etengabeko su armatua eta indarkeria dagoen eremu batean. Pedro Baigorri buruzko bere dokumentala urte luzeetako ikerketen emaitza da, non, pixkanaka-pixkanaka, hiriz hiri, ia ekoizpen baliabiderik gabe, Aranzadik ahaztutako istorio bat atera duen lurpetik.

BUSCANDO A PEDRO BAIGORRI

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **UNAI ARANZADI**

GUION | GIDOIA: **UNAI ARANZADI**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **INDEPENDENT DOCS**

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **69 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
UNAI ARANZADI

Un cuerpo perdido en el trópico y una historia que ha permanecido oculta durante medio siglo dan sentido a este documental sobre un navarro desconocido. La búsqueda y reconstrucción de la figura de Pedro Baigorri esconde varias incógnitas que el documentalista Unai Aranzadi trata de desentrañar. La acción arranca en la Navarra de los años 50. Allí había nacido Baigorri, hijo de un guardia civil que se crió en diferentes casas cuartel hasta que, gracias a sus dotes de cocinero, fue contratado en el hotel María Cristina de San Sebastián. En 1959 se exilió en Francia para eludir el servicio militar y comenzó su etapa guerrillera primero en el Frente de Liberación Nacional argelino y, años después, en la guerrilla colombiana, donde murió asesinado.

Tropikoan galdutako gorputz batek eta mende erdiz ezkutuan egon den istorio batek zentzua ematen diote nafar ezezagun bati buruzko dokumental honi. Pedro Baigorriren figura bilatu eta berreraikitzeak Unai Aranzadi dokumentalistak argitu nahi dituen hainbat zalantza ezkutatzen ditu. Ekintza 50eko hamarkadako Nafarroan hasten da. Han jaioa zen Baigorri, kuartel-etxe ezberdinetan hazi zen guardia zibil baten semea, sukaldari dohainei esker Donostiako Maria Cristina hotelean kontratatu zuten arte. 1959an Frantziara erbesteratu zen soldadutza saihesteko, eta gerrilla garaia hasi zuen Aljeriako Nazio Askapenerako Frontean eta, urte batzuk geroago, hil zuten gerrilla kolonbiarrean.



ÁNGELA GALLARDO

Madrid. Documentalista, ha participado en producciones como *Muestra tu herida* (2025), sobre David Delfín, o *La última noche de Sonia Martínez* (2024). Formó parte de la productora Producciones del Barrio, donde trabajó como guionista en programas como *Salvados* y *Lo de Évole*. Ha sido corresponsal para la cadena RT y especialista en comunicación para la Unesco en Costa Rica. Trabaja como directora audiovisual dentro del equipo de Vídeo Digital de RTVE Noticias.

Madril. Dokumentalista honek David Delfini buruzko *Muestra tu herida* (2025) edo *La última noche de Sonia Martínez* (2024) bezalako ekoizpenetan parte hartu du. Producciones del Barrio ekoiztetxeko kide izan zen, eta *Salvados* eta *Lo de Évole* saioetan gidoilari aritu zen. Korrespontsala izan da RT katearentzat eta komunikazioan aditua Unescorentzat Costa Rican. Ikus-entzunezko zuzendari gisa lan egiten du RTVE Noticias-eko Bideo Digitaleko lantaldean.

A FLOR DE TIERRA

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **ÁNGELA GALLARDO**

GUION | GIDOIA: **PATRICIA ARANDA, CRISTINA DOMAICA**

Y PABLO CAMINERO

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **GEMA ROLDÁN, LUCÍA VALDERRAMA**

Y PEDRO VILLAFUERTE, PARA RTVE NOTICIAS

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **24 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:

ANA MARTÍN PLAZA, MIGUEL CHARTE, ÁNGELA GALLARDO

(periodistas) y personas que han participado en el documental

En Marcilla (Navarra), dos años después de acabar la dictadura, un grupo de personas comienza la búsqueda y recogida de restos de sus familiares, asesinados durante la guerra civil. Los trabajos se hacían por la noche y se desenterraban cuerpos enterrados muy cerca de la superficie, a flor de tierra. La noticia saltó a la prensa: «Marcilla: Homenaje a 38 personas fusiladas durante la guerra». Josefina Campos, de Peralta, promovió búsquedas similares en su pueblo y aquello se extendió a otras localidades de la Ribera. Utilizaron métodos rudimentarios y herramientas del campo, muy lejos todavía de las identificaciones a través del ADN. Aquel movimiento duró hasta principios de los años 80 y permitió la localización de numerosas fosas y la recuperación de decenas de cuerpos.

Martzillan (Nafarroa), diktadura amaitu eta bi urtera, pertsona talde bat gerra zibilean eraildako senideen gorpuzkiak bilatzen eta biltzen hasi zen. Lanak gauez egiten ziren, eta lur azalean ehortzitako gorpuak ateratzen zituzten. Albisteak prentsara salto egin zuen: «Martzilla: Gerran fusilatutako 38 pertsonaren omenaldia». Azkoiengo Josefina Camposek antzeko bilaketak sustatu zituen bere herrian, eta hura Erriberako beste herri batzuetara zabaldu zen. Garatu gabeko aztarna-metodoak eta landa-tresnak erabili zituzten, oraindik DNAREN bidezko identifikazioetatik oso urrun. Mugimendu hark 80ko hamarkadaren hasierara arte iraun zuen, eta hainbat hobi aurkitzea eta dozenaka gorpu berreskuratzea ahalbidetu zuen.



PABLO GIL RITUERTO

Madrid, 1983. Tras licenciarse en Comunicación Audiovisual y diplomarse en montaje y postproducción, en 2008 se traslada a Barcelona donde cursa el Máster en Documental de Creación de la UPF. Desde hace quince años se dedica al montaje cinematográfico, trabajando para cineastas como José Luis Guerín (*La dama de Corinto, Recuerdos de una mañana*), Mercedes Álvarez (*Mercado de futuros*), Isaki Lacuesta (*Apagón*) o Marc Recha (*Centaures de la nit*), entre otros. *La marsellesa de los borrachos* es su primer largometraje como director.

Madril, 1983. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu eta muntaketan eta postprodukzioan diplomatu ondoren, 2008an Bartzelonara joan zen, eta han UPFko sorkuntzako dokumentalen masterra egin zuen. Duela hamabost urtetik zinema-muntaketan dihardu, besteak beste, José Luis Guerín (*La dama de Corinto, Recuerdos de una mañana*), Mercedes Álvarez (*Mercado de futuros*), Isaki Lacuesta (*Apagón*) eta Marc Ere (*Centaures de la nit*) zinemagileentzat lan eginez. *La marsellesa de los borrachos* da zuzendari gisa egin duen lehen film luzea.

LA MARSELLA DE LOS BORRACHOS

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **PABLO GIL RITUERTO**

GUION | GIDOIA: **ALBA LOMBARDIA Y PABLO GIL RITUERTO**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **BOOGALOO FILMS, GRAFFITI DOC, LES FILMS DE L'OEIL SAUVAGE, ESCARLATA ESTUDIOS**

AÑO | URTEA: **2024**

DURACIÓN | IRAUPENA: **96 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
PABLO GIL RITUERTO

La marselesa de los borrachos entrelaza dos viajes por España. El primero ocurrió en 1961, cuando el colectivo turinés Cantacronache, vinculado a figuras como Italo Calvino y Umberto Eco, recorrió el norte para grabar y difundir canciones populares de resistencia. El régimen franquista intentó desacreditarlos con un panfleto satírico titulado *La marselesa de los borrachos*. El segundo viaje sucede en 2022, bajo la dirección de Pablo Gil Rituerto, quien reconstruye aquella experiencia a través de la memoria oral. Emilio Jona, único testigo vivo de la expedición original, guía este recorrido que conecta pasado y presente, recuperando el legado de aquellos músicos y actualizando su espíritu crítico y revolucionario en la actualidad.

Espainian zehar egiten diren bi bidai elkartzen dira *La marselesa de los borrachos* filmean. Lehenengoa 1961ean burutu zen, Italo Calvino eta Umberto Eco bezalako pertsonaiei lotutako Cantacronache talde turindarrak iparraldean zehar ibili zenean erresistentziako abesti herrikoiak grabatzeko eta zabaltzeko. Erregimen frankistak, *La marselesa de los borrachos* izeneko panfleto satiriko batekin, haiek gutxiesten saiatu zen. Bigarren bidaia 2022an gertatu zen, Pablo Gil Rituertoren zuzendaritzapean, zeinak ahazko memoriaren bidez esperientzia hura berreraikitzen duen. Emilio Jonak, jatorrizko espedizioaren lekuko bizi bakarrak, iragana eta oraina lotzen dituen ibilbide hau gidatzen du, musikari haien ondarea berreskuratuz eta gaur egungo espiritu kritiko eta iraultzailea eguneratuz.



OMAR TUERO UNCAL

1973. Director y productor asturiano. Activista social y comprometido dirige contenidos de carácter social y político. Sus producciones incluyen documentales, programas de televisión y cortometrajes de ficción. Es socio fundador de la productora asturiana Covenant Audiovisuales, especializada en documentales de memoria histórica e identidad cultural. Como productor y director podemos destacar: *Doblaje* (2011), *Heteronomía* (2014) y *Permanezca a la espera* (2015). Ha dirigido también *Animalada Xabaz* (2020), *Valeru na memoria* (2021) y *A mano armada* (2022) proyectado en el VII Encuentro Audiovisual Imágenes con Memoria. Con él fue galardonado con el premio al mejor documental en el International Filmmaker Festival of New York.

1973. Asturiasko zuzendari eta ekoizlea da. Ekintzaile konprometitua, eduki sozial eta politikoko lanak zuzentzen ditu. Bere ekoizpenak dokumentalak, telebistako saioak eta fikziozko film laburrak dira. Asturiasko Covenant Audiovisuales ekoiztetxearen bazkide sortzailea da, memoria historikoaren eta nortasun kulturalaren dokumentaletan espezializatua. Ekoizle eta zuzendari gisa honako hauek azpimarra ditzakegu: *Doblaje* (2011), *Heteronomía* (2014) eta *Permanezca a la espera* (2015). *Animalada Xabaz* (2020), *Valeru na memoria* (2021) eta *A mano armada* (2022) ere zuzendu ditu. Azken hau, Memoria duten Irudiak Ikus-entzunezkoen VII. Topaketan proiektatu zen eta dokumental onenaren saria jaso zuen New Yorkeko International Filmmaker Festival jaialdian.

EL OLVIDO DE LAS PIEDRAS

(L'ESCAEZU DE LES PIEDRES)

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **OMAR TUERO**

GUION | GIDOIA: **OMAR TUERO**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **COVENANT AUDIOVISUALES**

Y FEDERACIÓN ASTURIANA MEMORIA Y REPÚBLICA

AÑO | URTEA: **2024**

DURACIÓN | IRAUPENA: **92 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
OMAR TUERO

Tras el golpe de Estado y la posterior dictadura franquista, los militares sublevados establecieron un sistema carcelario. Con el propósito de la clasificación, selección y eliminación física de la población que no compartía su ideología o consideraban sospechosa se creó un sistema estatal de campos de concentración. En Asturias, se calcula que fueron quince, siendo el más destacado el de Figueras-Arno, el único exclusivamente destinado a mujeres y niños. La miseria de su existencia, la dureza y los abusos, la represión específica de género sufrida por las mujeres y el lucro obtenido por algunas figuras influyentes gracias a la mano de obra esclava son las cuestiones examinadas en el documental de Omar Tuero.

Estatu-kolpearen eta ondorengo diktadura frankistaren ondoren, militar matxinatuek espetxe-sistema bat ezarri zuten. Beren ideologiarekin bat ez zetozen edo susmagarritzat jotzen zituzten biztanleak sailkatu, hautatu eta fisikoki desagerrarazteko asmoz, kontzentrazio-esparruen sistema bat sortu zen. Asturiasen, hamabost izan zirela kalkulatzen da, eta aipagarriena Figueras-Arnoa da, emakumeei eta haurrei bakarrik zuzenduta zegoena. Bere existentziaren miseria, gogortasuna eta gehiegikeriak, emakumeek jasandako genero-errepresio espezifiko eta eragin handiko pertsona batzuek eskulan esklaboari esker lortutako irabaziak dira Omar Tueroren dokumentalean aztertutako gaiak.



REYES GALLEGOS RODRÍGUEZ

Sevilla, 1979. Doctora en Arquitectura, especializada en urbanismo y paisaje con más de veinte años de experiencia laboral desde una perspectiva de género. Autora del guion del cortometraje *Es una niña*; colaboradora del proyecto y miembro del equipo de arte y localización en la serie *El hijo zurdo*, es autora de la pieza audiovisual *Ellas en la ciudad*, así como comisaria y directora creativa de todo el proyecto, exposiciones, entrevistas y acciones.

Sevilla, 1979. Arkitekturan doktorea da, hirigintzan eta paisaiaian espezializatua, eta hogeitaz baino gehiagoko lan-esperientzia du genero-ikuspegitik. *Es una niña* film laburraren gidoiaren egilea; *El hijo zurdo* serieko proiektuaren kolaboratzailea eta arte- eta lokalizazio-taldeko kidea; *Ellas en la ciudad* ikus-entzunezko piezaren egilea, eta proiektu osoaren komisario eta zuzendari-sortzailea.

RAFAEL COBOS

Sevilla, 1973. Guionista y director de cine y televisión galardonado con dos Premios Goya al Mejor Guion por *La isla mínima* y *El hombre de las mil caras*, guionista también de *Los tigres*. Dirigió en 2025 su primera película, *Golpes*, protagonizada por Luis Tosar y Jesús Carroza.

Sevilla, 1973. Zinema eta telebistako gidoilari eta zuzendaria da, eta Gidoi Onenaren bi Goya sari irabazi ditu *La isla mínima* eta *El hombre de las mil caras* filmengatik. *Los tigres* filmeko gidoilaria ere bada, eta 2025ean zuzendu zuen bere lehen filma, *Golpes*, Luis Tosar eta Jesús Carroza protagonista dituen.

ELLAS EN LA CIUDAD

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **REYES GALLEGOS**

GUION | GIDOIA: **REYES GALLEGOS Y RAFAEL COBOS**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **MOVISTAR PLUS+, LAS AFUERAS**

FILMS Y CANAL SUR

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **70 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
REYES GALLEGOS

Ellas en la ciudad está protagonizada por la generación de mujeres que pobló los barrios de la periferia sevillana construidos en los 70. A través de sus vidas en tres barrios de la capital hispalense, descubrimos cómo son el sostén de una ciudad que les da la espalda. Los relatos hablan de género, cuidados, urbanismo, educación y luchas políticas. Sus testimonios son imprescindibles para conocer, desde la perspectiva de género, el patrimonio cultural de nuestro país y la transformación de nuestras ciudades en los últimos cincuenta años.

Ellas en la ciudad 70eko hamarkadan eraikitako Sevillako periferiako auzoak populatu zituen emakumeen belaunaldia da protagonista. Andaluziako hiriburuko hiru auzotako emakumeen bizitzaren bidez, bizkarra ematen zuten hiri baten euskarri zirela jakingo dugu. Kontakizunek generoaz, zaintzaz, hirigintzaz, hezkuntzaz eta borroka politikoez hitz egiten dute. Haien testigantzak ezinbestekoak dira, genero-ikuspegitik, gure herrialdeko kultura-ondarea eta gure hirien azken berrogeita hamar urteetako eraldaketa ezagutzeko.



AMPARO CLIMENT

Valencia. Licenciada en Bellas Artes por la Universidad Complutense de Madrid al mismo tiempo que estudió arte dramático en la Escuela El Micalet, en Valencia. Como artista multidisciplinar es autora de textos dramáticos, además de actriz, guionista y directora de cine. Preside la Asociación Cultural Arte y Memoria impulsora del Festival Internacional de Cine por la Memoria Histórica. Como documentalista ha realizado una larga serie de obras entre las que destaca *Las cartas perdidas* (2021). Como artista plástica ha expuesto su trabajo en Suecia, Suiza, Italia, Francia, Reino Unido, EE. UU. y, naturalmente, España. Miembro y representante electa por la Especialidad de Interpretación en la Junta directiva de la Academia de las Artes y de las Ciencias Cinematográficas de España, es secretaria del Consejo de AISGE y patrona de la Fundación AISGE.

Valentzia. Arte Ederretan lizentziaduna da Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta aldi berean arte dramatikoa ikasi zuen Valentziako El Micalet Eskolan. Diziplina anitzeko artista gisa, testu dramatikoen egilea da, baita aktore, gidoilari eta zinema-zuzendaria ere. Memoria Historikoaren aldeko Nazioarteko Zinemaldia bultzatu duen Artea eta Memoria Kultur Elkartearen buru da. Dokumentalista gisa, hainbat lan egin ditu, horien artean *Las cartas perdidas* (2021). Artista plastiko gisa Suedia, Suitza, Italia, Frantzia, Erresuma Batua, AEB eta, jakina, Espainian erakutsi du bere lana. Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako zuzendaritza batzordeko kidea interpretazio espezialitateko ordezkari hautatua, AISGEko Kontseiluko idazkaria eta AISGE Fundazioko patroia ere bada.

DOLORES IBARRURI PASIONARIA

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **AMPARO CLIMENT**

GUION | GIDOIA: **AMPARO CLIMENT**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **PASIONARIA, A.I.E., BOWFINGER
INTERNATIONAL PICTURES S.L.**

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **80 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
AMPARO CLIMENT

Una visión profunda y humanizada de Dolores Ibárruri Gómez (1895, Gallarta, Bizkaia–1989, Madrid), conocida como *Pasionaria*. Fue la primera mujer dirigente de un partido político español, una influyente y carismática personalidad que dirigió el Partido Comunista de España entre 1942 y 1989. Vivió en el exilio en la URSS durante el régimen franquista y actualmente está reconocida como una de las figuras políticas más icónicas del siglo XX. El documental levanta una biografía emocional, vinculada a los grandes acontecimientos históricos y su impacto en la sociedad. Dolores y su nieta, Lola, nos conducen por los caminos más íntimos del amor, las nostalgias, las soledades y las pérdidas a través de testimonios fílmicos, entrevistas y documentos sobre su vida.

Dolores Ibarruri Gomez (1895, Gallarta, Bizkaia–1989, Madrid), Pasionaria izenez ezagunaren ikuspegi sakon eta humanizatua. Espainiako alderdi politiko bateko lehen emakume buruzagia izan zen, 1942tik 1989ra Espainiako Alderdi Komunista zuzendu zuen nortasun karismatiko eta eragin handikoa. Erregimen frankistan erbestean bizi izan zen SESBen, eta, gaur egun, XX. mendeko politikari ikonikoenetakotzat aitortua da. Dokumentalak biografia emozional bat eraikitzen du, gertaera historiko handiei eta horiek gizartean duten eraginari lotua. Doloresek eta bere bilobak, Lolak, maitasunaren, nostalgien, bakardadeen eta galeren biderik intimoenetatik eramaten gaituzte, testigantza filmikoen, elkarriketen eta bere bizitzari buruzko dokumentuen bidez.



ADOLFO DUFOUR ANDÍA

1955. Ha realizado más de un centenar de documentales, entre ellos *Viva la escuela moderna* (1999) o *Septiembre del 75* (2009), y ha sido ganador del 2º Premio Tiempo de Historia en la SEMINCI de Valladolid. Ha trabajado en series como *Ésta es mi tierra* (1981 a 2004), *Robinson* (1982), *Paraísos cercanos* (1997 a 2007), *Memoria de España* (2002) o *Camino a casa* (2006), entre otros. Ha dirigido largometrajes de ficción y espacios dramáticos para televisión. Además, es profesor de guion, montaje, realización de documentales y dirección en la Escuela Internacional de San Antonio de los Baños (Cuba), en el IORTV y en la ECAM.

1955. Ehundik gora dokumental egin ditu, horien artean *Viva la escuela moderna* (1999) edo *Septiembre del 75* (2009), eta Valladolideko SEMINCIn Tiempo de Historiaren 2. saria irabazi du. Besteak beste, *Esta es mi tierra* (1981-2004), *Robinson* (1982), *Paraísos cercanos* (1997-2007), *Memoria de España* (2002) edo *Camino a casa* (2006) serieetan lan egin du. Fikziozko film luzeak eta telebistarako tarte dramatikoak zuzendu ditu. Gainera, Kubako San Antonio de los Bañoseko Nazioarteko Eskolan, IORTVn eta ECAMen gidoigintzako, muntaketako, dokumentalen errealizazioko eta zuzendaritzako irakaslea da.

LAS ARMAS NO BORRARÁN TU SONRISA

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **ADOLFO DUFOUR**

GUION | GIDOIA: **ADOLFO DUFOUR**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **ATRAPASUEÑOS CINEMA**

AÑO | URTEA: **2024**

DURACIÓN | IRAUPENA: **100 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
ADOLFO DUFOUR

Testimonio dramatizado sobre los asesinatos de la «semana negra» de Madrid de 1977. El punto de arranque gira en torno a Manuel Ruiz García, quien lleva toda una vida denunciando el asesinato de su hermano Arturo. El domingo 23 de enero de 1977, cuando escapaba de una carga policial de la manifestación pacífica convocada a favor de la amnistía, Arturo Ruiz García fue asesinado en Madrid por un comando ultraderechista. Manuel no está solo en su intento. Cuenta con la ayuda de otro de sus hermanos, Miguel Ángel, y de Javier, hermano de Ángel Almazán, otra víctima a la que mataron de una brutal paliza los policías que le detuvieron en una manifestación pacífica el 15 de diciembre de 1976.

1977ko Madrilgo «aste beltzeko» hilketei buruzko testigantza dramatizatua. Abiapuntua Manuel Ruiz Garcíaaren ingurukoa da, bizitza osoa baitarama Arturo anaiaren hilketa salatzen. 1977ko urtarrilaren 23an, amnistiaren alde deitutako manifestazio baketsuan karga polizial batetik ihes egiten ari zela, komando ultraeskuindar batek Arturo Ruiz García hil zuen Madrilén. Manuel ez dago bakarrik bere saiakeran. Miguel Angel anaietako baten eta, Javierren, Angel Almazanen anaiaren laguntza du. Angel Almazan 1976ko abenduaren 15ean manifestazio baketsu batean atxilotu zuten poliziek jipoi bortitz baten ondorioz hil zuten.



JESÚS GARRIDO

Sevilla, 1971. Comenzó sus estudios en la Escuela Superior de Arte Dramático de la capital hispalense. Ha desarrollado su andadura como profesional desde 1988. Desde entonces y, como actor, director y/o productor, ha trabajado en innumerables producciones tanto de cine, como de teatro y televisión. Entre sus obras dirigidas se contemplan *Caracoles* (2019) y *UGT Sevilla, historia de la lucha obrera* (2023).

Sevilla, 1971. Bere jaioterriko Arte Dramatikoko Goi Eskolan hasi zen ikasten. 1988az geroztik garatu du bere ibilbide profesionala. Harrezkero, aktore, zuzendari eta/edo ekoizle gisa, hainbat eta hainbat zinema-produkzioetan, antzerkian eta telebistan lan egin du. Zuzendutako lanen artean daude *Caracoles* (2019) eta *UGT Sevilla, historia de la lucha obrera* (2023).

EXP. 95/36 COLUMNA MINERA. HASTA LA ETERNIDAD

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **JESÚS GARRIDO**

GUION | GIDOIA: **MERCEDES M. DEL RÍO, ÁLVARO DE ARMIÑÁN,
JESÚS GARRIDO Y RAFAEL ADAMUZ**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **PIEL DE CABRA PRODUCCIONES S.L.**

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **69 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
JESÚS GARRIDO

El 18 de julio de 1936, una columna de mineros se trasladó desde la cuenca minera de Río Tinto hacía Sevilla, para defender al gobierno legítimo de la II República. Al llegar a Sevilla fueron traicionados y esperados por una dotación de la Guardia Civil que los masacró. Los escasos supervivientes fueron encarcelados y a los dos meses fusilados tras un juicio sumarísimo. En este documental se narra este hecho que ocurrió apenas unas horas después del golpe de estado contra la legalidad vigente, para que no quede en el olvido de nuestra memoria democrática y sirva como reconocimiento a todos aquellos y aquellas a los que se les arrebató la vida por defender la democracia y el gobierno legítimo de la II República.

1936ko uztailaren 18an, meatzarien zutabe bat Río Tintoko meatze-arrotik Sevillara joan zen, II. Errepublikako gobernu legitimoa defendatzeko. Sevillara iritsi zirenean, traizionatu egin zituzten, eta zain zeuden guardia zibil batzuek sarraskitu egin zituzten. Bizirik atera ziren pertsona urriak espetxeratu, eta bi hilabetera fusilatu egin zituzten, epaiketa sumarísimo baten ondoren. Dokumental honetan, indarrean dagoen legeriaren aurkako estatu-kolpea eman eta ordu gutxira jazo zen gertaera hori kontatzen da, gure memoria demokratikoa ahaztu ez dadin eta demokrazia eta II. Errepublikako gobernu legitimoa defendatzeagatik bizia kendu zitzaizen guztiei errekonozimendu gisa balio dezan.



LUCÍA DAPENA

Galicia, 1988. Licenciada en Comunicación Audiovisual por la Universidad Complutense de Madrid y especializada en documental por el Máster de Documental de Creación de la Universidad Pompeu Fabra de Barcelona. Desde 2018 hasta 2025 ha desarrollado su actividad cinematográfica en el marco de La Selva. Ecosistema Creatiu, cooperativa especializada en la producción cinematográfica de películas con impacto social y proyectos formativos con colectivos en riesgo de exclusión. Posee una larga experiencia como realizadora de cortometrajes y *O Silencio Herdado* (2025) ha sido su primer largometraje documental como directora y guionista. El documental ha sido seleccionado en diferentes festivales internacionales: sección oficial de DocsBarcelona 2025 sección oficial PlayDoc 2025 y Ourense Film Festival 2025 donde recibió el premio al Mejor Guion de la Sección Oficial Panorama Galicia.

Galizia, 1988. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta dokumentaletan espezializatua Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Sorkuntzako Dokumental Masterrean. 2018tik 2025era bitartean, La Selva. Ecosistema Creatiu esparruan garatu du bere jarduera zinematografikoa. *La Selva*, gizarte-inpaktua duten filmen eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboekiko prestakuntza-proiektuen ekoizpen zinematografikoan espezializatutako kooperatiba da. Esperientzia luzea du film laburren errealizadore gisa eta *O Silencio Herdado* (2025) bere lehen film luze dokumentala izan da zuzendari eta gidoilari gisa. Dokumentala nazioarteko hainbat jaialditan aukeratu dute: DocsBarcelona 2025eko sail ofizialean, PlayDoc 2025eko sail ofizialean eta 2025eko Ourense Film Festival, non Panorama Galicia Sail Ofizialetako Gidoi Onenaren saria jaso zuen.

EL SILENCIO HEREDADO

(O SILENCIO HERDADO)

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **LUCÍA DAPENA**

GUION | GIDOIA: **LUCÍA DAPENA GONZÁLEZ**

Y LILLIANA DÍAZ CASTILLO

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **LA SELVA ECOSISTEMA CREATIU**

Y GAITAFILMS

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **82 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
LUCÍA DAPENA

Decía Ken Loach que cuando los nietos quieren saber la historia de sus abuelos, suele ser demasiado tarde. Éste no es el caso. *El silencio heredado* recoge la escenificación de un duelo incruento, de un diálogo sin encuentro? Asistimos a los intentos de Lucía Dapena para que su abuela, Edilia, dé luz sobre el pasado familiar mordido por el horror de la guerra civil. Pero Lucía sólo encuentra evasivas y silencios inquietantes. Durante 82 minutos entre nieta y abuela se produce un diálogo sordo, un hermoso encuentro retórico en el que la directora busca recuerdos y datos, mientras la abuela defiende la necesidad del olvido sin despejar la niebla del pasado. Cuando Lucía entiende que nunca encontrará las respuestas decide escuchar ese silencio para tratar de comprenderlo.

Ken Loachek zioenez, bilobek aitona-amonen istorioa jakin nahi dutenean, beranduegi izaten da. Hau ez da kasua. *El silencio heredado* filmak odolik gabeko duelu baten eszenifikazioa isladatzen du, topaketarik gabeko? elkarrizketa batena. Filma honetan ikusten dira Lucia Dapenak egin zituen saiakerak bere amona, Edilia, gerra zibilaren izugarrikeriak hozkatutako familiaren iraganaz argia emateko. Hala ere, Luciak hitz iheskorrak eta isiltasun kezagarriak baino ez ditu aurkitzen. Bilobaren eta amonaren artean 82 minutuz elkarrizketa isil bat gertatzen da, topaketa erretoriko eder bat, non zuzendariak oroitzapenak eta datuak bilatzen dituen, amonak iraganeko lainoa argitu gabe ahanzturaren beharra defendatzen duen bitartean. Luciak ulertu zuenean erantzunak ez zituela inoiz aurkituko, isiltasun hori entzutea erabaki zuen ulertzen saiatzeko.



MARCELLO PERES Y NICOLA TAGLIABUE

En 2018, Marcello Peres y Nicola Tagliabue fundaron Heracles Archaeology, un *network* dedicado a la producción de documentales arqueológicos y contenidos multimedia, con bases en Catalunya e Italia y actividad en todo el Mediterráneo. La empresa crea materiales para museos y yacimientos: páginas web, vídeos expositivos, fotografía arqueológica, grabaciones aéreas, modelos 3D, visitas virtuales, contenidos en 360 grados y podcasts. Marcello Peres, barcelonés, es arqueólogo *freelance*, director de documentales y doctorando en Prehistoria en la Universitat Autònoma de Barcelona. Nicola Tagliabue, nacido en Verona, es fotógrafo, director y productor; ha trabajado como cámara para la RAI y fundó la productora Shake the Moment.

2018an, Marcello Peresek eta Nicola Tagliabuek Heracles Archaeology sortu zuten 2018an, bideo-dokumental arkeologikoak eta multimedia-edukiak ekoizteko *network* bat. Oinarri Katalunian eta Italian ditu, baina ekintza-eremua Mediterraneo osora zabaltzen da. Enpresak museoetarako eta aztarnategietarako materialak sortzen du: web-orrialdeak, erakusketetarako bideoak, material arkeologikoen argazkiak, aireko grabazioak, 3D modeloak, bisita birtualak, edukiak 360 gradutan eta podcastak. Marcello Peres, Bartzelonakoa, *freelance* arkeologoa, dokumentalen zuzendaria eta historiaurreko doktoregaia Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan da. Nicola Tagliabue, Veronan jaioa, argazkilaria, dokumentalen zuzendaria eta ekoizlea, RAIrako kameralari gisa lan egin du eta Shake the Moment produkzio-etxearen sortzailea da.

CONTRALUZ, HISTORIAS DEL EXILIO REPUBLICANO EN EL NORTE DE ÁFRICA

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA:

MARCELLO PERES, NICOLA TAGLIABUE

GUION | GIDOIA: **MARCELLO PERES**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **FUNDACIÓN DOMINGO MALAGÓN**

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **89 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
MARCELO PERES

Contraluz es el segundo de una serie de documentales sobre el exilio republicano producidos por la Fundación Domingo Malagón en colaboración con Heracles Archaeology y con el patrocinio del Ministerio de Política Territorial y Memoria Democrática. Recoge la memoria del exilio en el norte de África poniendo el foco en los refugiados que llegaron al puerto de Orán tras la guerra civil española. A través de fotografías, vídeos y testimonios orales, rescata una de las páginas más desconocidas y olvidadas del exilio republicano. El documental alberga una historia difícil de mirar y apuesta por un cambio de perspectiva sobre el éxodo de refugiados a través del Mediterráneo, un fenómeno que no siempre ha sido unidireccional y que, en diversas ocasiones, estuvo marcado por la integración y la convivencia multicultural.

Contraluz Domingo Malagón Fundazioak, Heracles Archaeology-ren lankidetzarekin eta Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren babesarekin, erbesteratze errepublikarrari buruz egindako dokumentalen sorta baten bigarren da. Afrikako iparraldeko erbestealdiaren memoria jasotzen du, eta Espainiako gerra zibilaren ondoren Orango portura iritsi ziren errefuxiatuegan jartzen du arreta. Argazkien, bideoen eta ahozko testigantzen bidez, erbesteratze errepublikarraren orrialde ezezagun eta ahaztuenetako bat erreskatatzen du. Dokumentalak begiratzeko zaila den istorio bat gordetzen du eta Mediterraneoan barrena errefuxiatuak ateratzeari buruzko perspektiba aldatzearen aldeko apustua egiten du. Fenomeno hori ez da beti norabide bakarrekoa izan, eta, hainbatetan, integrazioak eta bizikidetzak multikulturalak markatu zuten.



DIEGO PAQUÉ

Se definía así en una autobiografía: «soy hijo de María Merguizo y Manuel García Paqué, tengo 35 años. Nací en Bilbao, aunque me he criado en el sur, mis padres son de Granada. Yo soy músico, cantautor de flamenco, pero me siento especialmente comunicador de sentimientos. Me gusta mucho la mecánica, trabajar con las manos, he trabajado muchos años con el hierro, mi familia es de la fragua. Me gusta mucho leer y la naturaleza. Nunca había estado tan cerca del mar y me apasiona». Movidio por la herida abierta sufrida en su niñez por su hermana Leonor, licenciada en Ciencias de la Información, ambos impulsan este documental sanador sobre los abusos sexuales cometidos en el seno de la iglesia.

Honela definitu zuen bere burua autobiografia batean: «Maria Merguizo eta Manuel Garcia Paqueren semea naiz, 35 urte ditut. Bilbon jaio nintzen, nahiz eta hegoaldean hazi, gurasoak Granadakoak ditut. Musikaria naiz, flamenkoaren kantautorea, baina sentimenduen komunikatzaile sentitzen naiz bereziki. Mekanika asko gustatzen zait, eskuekin lan egitea, urte asko eman ditut burdinarekin, nire familia sutegikoa da. Asko gustatzen zait irakurtzea eta natura. Inoiz ez naiz itsasotik hain gertu egon, eta izugarri gustatzen zait». Haurtzaroan bere arreba Leonorrek, Informazio Zientzietan lizentziadunak, jasandako zauri irekiak bultzatuta, biek sortzen dute elizan egindako sexu-abusuak sendatzeko dokumental hau.

HERMANA LEONOR 20.000 KILÓMETROS DE CONFESIÓN

DIRECCIÓN | ZUZENDARITZA: **DIEGO PAQUÉ**

GUION | GIDOIA: **DIEGO PAQUÉ Y LEONOR PAQUÉ**

PRODUCCIÓN | EKOIZPENA: **MANU PAQUÉ**

AÑO | URTEA: **2025**

DURACIÓN | IRAUPENA: **110 MIN.**

PRESENTACIÓN Y COLOQUIO | AURKEZPENA ETA SOLASALDIA:
DIEGO Y LEONOR PAQUÉ

La escritora y periodista Leonor Paqué decide ponerse al volante de su viejo coche acondicionado para dormir en él, con la intención de dar voz a una realidad silenciada: la pederastia clerical. Tras sobrevivir a los abusos que sufrió en su infancia por parte de un sacerdote, Leonor Paqué, junto a su hermano Diego, compositor y músico, dedicó tres años a recorrer más de 20.000 kilómetros por España y encontrarse con víctimas como ella. A bordo de un Renault Clío, convertido en hogar ambulante, ambos cartografiaban el país para encontrar a quienes han vivido años de silencio, culpa y desamparo institucional. El resultado, un puñado de testimonios que resultan tan sobrecogedores como dolorosos y levantan una denuncia incontestable e incontestada.

Leonor Paqué idazle eta kazetariak bertan lo egiteko egokitutako auto zaharra gihatzea erabaki zuen, isildutako errealitate bati ahotsa emateko asmoz: kleroen pederastia. Apaiz batek haurtzaroan jasan dako gehiegikerietatik bizirik atera ondoren, Leonor Paqué, bere anaia Diego konpositore eta musikariarekin batera, hiru urte eman zituen Espainian 20.000 kilometro baino gehiago egiteko eta bera bezalako biktimekin topo egiteko. Etxe ibiltari bihurtutako Renault Clío batean, biek herrialdea kartografiatu zuten, urteetan erakundeen isiltasun, erru eta babesgabetasun egoeran bizi izan direnak aurkitzeko. Emaizak, bidai horretan bildutako lekukotza mordoak, mingarriak bezain ikaragarriak, salaketa ukaezina eta erantzun gabea jasotzen du.



ENTRADA

La entrada es libre hasta completar aforo. Para las proyecciones en los Cines Golem Baiona, retirada de las invitaciones en taquilla a partir del 14 de marzo.

SARRERA

Sarrera librea da aretoa bete arte. Golem Baiona zinemetako emanaldietarako gonbidapenak leihatilan jaso ahalko dira martxoaren 14tik aurrera.

FOTO DE PORTADA | AZALEKO ARGAZKIA:

FOTOGRAMA DEL DOCUMENTAL *ELLAS EN LA CIUDAD*
DE REYES GALLEGOS

FOTO DE CONTRAPORTADA | KONTRAZALEKO ARGAZKIA:

FOTOGRAMA DEL DOCUMENTAL *CONTRALUZ* DE MARCELLO PERES Y NICOLA TAGLIABUE

ORGANIZA | ANTOLATZEN DU:

GOBIERNO DE NAVARRA / NAFARROAKO GOBERNUA
DIRECCIÓN GENERAL DE MEMORIA Y CONVIVENCIA /
MEMORIA ETA BIZIKIDETZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA
INSTITUTO NAVARRO DE LA MEMORIA / NAFARROAKO
MEMORIAREN INSTITUTUA

COORDINA | KOORDINATZAILEA:

ARTYCO

COLABORAN | LAGUNTZAILEAK:

CINES GOLEM, CULTURA-TUDELA, CINE MONCAYO

DISEÑO | DISEINUA: INTRO COMUNICACIÓN

IMPRIME | INPRIMATZEN DU: GRÁFICAS BIAK

DL NA 919-2019

INSTITUTO NAVARRO DE LA
MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

